

OSAKIDETZAREN BESTE INBERTSIO BAT ARABA ESIKO ERRADIODIAGNOSTIKO ZERBITZURAKO

Jon Darpónek, Osasun Sailburuak, AUO Txagorritxuko ekipamendu berria bisitatu du, pertsonak jasotzen duten erradiazio dosia txikituko duena eta emaitza klinikoak zein pazienteen segurtasuna optimizatuko duena.

1.100.000 euroko inbertsio horrekin, Araba ESIko Erradiodiagnostiko zerbitzua hornitu da azken sorrerako eskaner berri batez, tomosintesidun mamografo digital zuzen batez eta zuzeneko erradiologia digitaleko gela batez.

Gaur otsailaren, 12a (astelehena) Jon Darpón Sailburuak eta M^a Jesús Múgicak Osakidetza Zuzendari nagusiak, AUO Txagorritxun, Araba ESIko Erradiodiagnostiko zerbitzurako duela gutxi erositako ekipamendu berria bisitatu dute.

Bisita horretan, Eusko Jaurlaritzako Sailburuak honako hau azpimarratu du: **“Arabaren egin den inbertsio berri honek ahalbideratuko du Osakidetzak arabarrei eskaintzen dien arreta hobetzen jarraitzea. Horretaz gain, eskuratutako ekipo berriekin aurrera egiten dugu pazientearen segurtasunaren hobekuntzan, eta horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako lehentasunezko lerro estrategikoetako bat arreta sanitarioaren alorrean”**. Testuinguru honetan kokatzen da **Osasun Saileko erronka, teknologia berrien inbertsioan arabarren osasunaren zerbitzura jartzeko, Osakidetzako teknologia berritze eta mantentzean.**

EKIPAMENDU BERRIA

Eusko Jaurlaritzak 1.100.000 euroko inbertsioa egin du Araba ESIko erradiodiagnostiko zerbitzuko ekipamenduan, **eskaner berri bat eskuratzera zuzendua edo azken sorrerako OTAra (ordenagailu bidezko tomografia axial), tomosintesisdun mamografo digital zuzenera, edo zuzeneko erradiologia digitaleko gela batera.**

Eskaner berriak pazienteari egindako miaketa bakoitzean erradiazio dosia laudenera jaitea ahalbideratzen du. Eskuratzeko berri honekin, Arabako ESIk lau eskaner izango ditu, eta horietatik hiru azken sorrerakoak izango dira. Tresna horiek automatizatutako erremintak dituzte bai irudiak lortzeko, baita prozesatu osterako, emandako erradiazioa txikitzea ahalbideratzen duena, hau bereziki sentikorra da paziente onkologiko eta pediatrikoetan. **Eskaner berriaren urteko jarduera batez beste 9.000 pazientekoa izatera iritsiko da.**

OTA berri honen teknologia aurreratua **organo osoen perfusioa** egitea ahalbideratzen du (ICTUS kasuetan burmuina sartuko da) **kolonoskopia birtualak egitea eta ikasketa abdominalak**, aurretik enemak, libratzaile, ahozko kontrastea eman behar izan gabe **lkerketa baskular eta bihotzeko aurreratua** egitea ere ahalbideratzen du, **litiasi urologikoak** karakterizatzea zain barneko kontraste iododuna eman behar izan gabe.

Segurtasunaz gain, eskaner berriaren beste ezaugarrietako bat zera da: **10 segundutan gorputz osoaren arakatzea egiteko gai izatea**, bertute ezin garrantzitsuagoa larrialdietako pazienteez ari garenean.

2017ko abenduan, gainera, **tomosintesisdun mamografo digital zuzena** jarri zen, teknologia hori duen Arabako lehendabizikoa eta bakarra. Tomosintesisak irudiak ohiko modu konbentzionaletan lortzeko (2D) gehitzen dio irudiak 3Dn lortzeko aukera, bularreko patologia erradiologiakoaren azterketan zehaztasun handiagoa lortzen du. 2D eta 3D azterketa osoa 8 segundu baino gutxiagotan egiten da, eta informazioa osoa 5 segundu baino gutxiagotan prozesatzen da; diagnostikoa egin behar duen profesionalari irudiak aurkezteko.

Talde honek hobekuntza garrantzitsuena moduan dosien gutxitze sistema modernoa aurkezten du, horrela, pazienteentzako dosi osoa 2,5 mGy azpitik dago, ohiko mamomografia baten ordenan. Mamografo honekin urtean batez beste 35.000 paziente aztertuko direla baiesten da.

Mamografoa baita eskaner berria ere PACSera (*picture archiving and communications system*) loturik egongo dira, Araba ESI osorako jada bateratua dagoena; honek ahalbideratuko die erakunde osoko Erradiodiagnostiko Zerbitzuko profesionali lortutako irudien fluxurako sarbidea. Horrek guztiak ahalbideratuko du ahalik eta denbora gutxien diagnostiko medikoa egitea.

Bestalde, 2018ko urtarrilean AUO Txagorritxuko Larrialdietako zerbitzuko erradiografia gela ordeztu da **zuzeneko erradiologia digitaleko gela batez, zapaieko zintzilikatzailea duena, *autotracking* sistema eta wifi erako ari gabeko bi detektagailuduna**. Teknologia honek erradiografia auto kontzentrazioa ahalbideratzen du eta detektagailu batzuk ditu wifi bidez paziente guztiei egindako irudi guztiak bidaltzen diena, operadorearen estaziora bidaltzen ditu eta honek larrialdi gelako eguneroko lana ikaragarri arintzen du. Tresna honekin batez beste urteko 56.000 erradiografia egingo direla berresten da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 12a